



Esp.kodea: 2021EDIR0010

Gaia: 2021eko dirulaguntza eskaera (2021/1.5)  
Hasiera eguna: 2021/04/30

## Hitzarmena

### Arrasateko Udalaren eta Arkodi elkartearen artean, Mondraberrri.com web gunea elkarlanean antolatu eta finantzatzeko

Arrasaten, 2021/06/04an

#### Bildurik

Alde batetik, Iker Arana Fernandez jauna, NA 72.584.357Z duena, adinez nagusia, Arkodi elkartearen izenean eta errepresentazioz.

Eta bestetik, Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, haren izenean diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dago eta.

Bi aldeek, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

#### Lege testuingurua

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarren hizkuntza eskubideak aitortu eta herri-agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Albisteak eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die herritarrei, besteak beste. Lege horren arabera, beraz, Euskal Herriko herri-agintek –eta, zehazkiago esanda, udalek– euskara zabaldu eta zabaltzen laguntzeko obligazioa dute, bai eta komunikabideen arloan ere.

Horretaz gain, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7. artikuluan zehazten du udalei izendatzen zaiela eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko, eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.

#### Azalpenak

Azken urteotan Arrasaten eta Debagoienean herri eta eskualde komunikabideen alde egindako lan eta ahaleginaren fruitu emankor bilakatu dira herritarrengandik hain harrera ona eta beroa jaso duten Goiena eta Goiena Telebista eta, oraintsuago, interneten Arrasateko atari bihurtu den “Mondraberrri” egunkari digitala.

Mondraberrri web gunea Portaloi elkarteak sortu zuen 2004ko azaroan, eta harrez gero, egunero-egunero jardun du herriko albiste eta gorabeherak internetez zabaltzen, modu horretara beste ekarpen bat eginez gure herriko informazio alorrera. Aintzat hartzeko moduko ekarpena, internet erabiltzen duelako, eta denetariko gaiak jorratzen dituelako. Hainbat urtean Portaloi elkarteak Mondraberrri.com kudeatzen aritu ondoren, 2013an Arkodi elkarteak hartu zuen bere gain.

Honen guztiaren ondorioz, euskarari eta herriaren errealitatearen informazioari mesede egiten dion proiektua da Mondraberrriena, Arrasateko Udalaren ustez.

Udalak modu positiboan hartzen du Mondraberrri egiten duen lana, eta hori guztia dela eta, hitzarmen hau izenpetzen dute, ondorengo klausulen arabera:



Esp.kodea: 2021EDIR0010

Gaia: 2021eko dirulaguntza eskaera (2021/1.5)  
Hasiera eguna: 2021/04/30

### Klausulak

**Lehena.-** Hitzarmen honen helburua da 2021 urtean Arkodi elkarteak eta Arrasateko Udalak elkarlanean burutuko dituzten jardueretarako dirulaguntza xedatzea, Mondraberrri komunikazio proiektua dela eta.

**Bigarrena.-** Hitzarmen honen bidez Mondraberriren jarduerak subentzionatuko ditu Arrasateko Udalak, eta hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera burutuko ditu Mondraberririk jarduera horiek.

**Hirugarrena.-** Arrasateko Udalak, 2021 urtean, 21.000 €-ko dirulaguntza emango dio Arkodi elkarteari, Mondraberrri web gunearen jarduerak finantzatzeko. Hitzarmen hau sinatu eta berehala jasoko du dirulaguntzaren %60a eta gainerakoa zuritutakoan.

**Laugarrena.-** Mondraberririk konpromiso hauek hartzen ditu:

- Mondraberririk berak landuko dituen informazio eta eduki guztiak euskaraz emango ditu argitara.
- Arrasateko Udalaren jardueren informazioa emango du, objetibotasunez eta zuzentasunez.
- Zabaltasunez jokatu du informatzerakoan, errealitatearen ispilu izanik, batzuei eta besteei leku duina eginez.
- Herriko kulturetzak eta kirol munduak tratu berezia jasoko dute Mondraberrin, elkarbizitzarako duten garrantziaz kontuan izanik.
- Mondraberririk autofinantzaketa mailan gora egiteko politika eraginkorrak sustatuko ditu.
- Urteko ekintzen azalpen memoria aurkeztuko du Mondraberririk datorren 2022ko urtarrilaren 15a baino lehen, bai eta proiektuaren finantza egoera ere (egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontua)

**Bosgarrena.-** Koordinazio mekanismoak eratuko dituzte bi aldeek, erabakiak hartu aurretik adostasuna lortzea beharrezkoa den kasuetarako. Koordinazio mekanismo gisara bitariko batzordea eratzea adosten da, hitzarmen honen betetze eta interpretazioan sor daitezkeen arazoak ebazteko egitekoarekin. Batzorde hau osatuko dute Kultura eta Euskara sailtako zinegotzi eskuordetuak eta Mondraberririk ordezkariak.


**Seigarrena.-** Arrasateko Udala babesle moduan agertuko da, bai Mondraberrin bai eta ekintza horien kartel iragarleetan ere.

**Zazpigarrena.-** Hitzarmen honen iraunaldia amaituko da Arrasateko udalak aurkeztutako zuriaketaren ondorengo ebazpena hartzen duenean.

**Zortzigarrena.-** Alderdiek ez badituzte dagozkien betebeharrak betetzen, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna adierazteko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.

Arrasateko alkate-udalburua



Iker Arana Fernandez  
Arkodi elkarteko lehendakaria